

(Artikulu hau Hik Hasi aldizkarian publikatu zen 2011ko martxoan)

14 Hazi

Konsue Salinas

Garapenerako Hezkuntzari (GH) curriculumaren barruan zilegitasuna eman behar zaiola kontuan izanik, eta eskoletako eguneroko dinamikan sartzearen garrantzia ikusirik, 4 urteko haurren nire ikasgelan garatu ditugun zenbait Praktika On aurkeztera animatu naiz, GHren esperientzia sinple bat dibulgatuz, beste irakasleak hezkuntza-lerro hau lantzerantz animatuko ditudalakoan. Era berean, hezkuntza hobetzeko proposamen bat da, eta Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuetan GHren oinarriak sartzearen inguruko eztabaidan eta hausnartzeko beharrez eragitea da nire asmoa.

GH hezkuntza prozesu parte-hartzaile, jarraikor eta transformatzaile gisa ulertzen dugu, hiritartasun aktibo eta solidarioa bultzatuko duena, kontzientzia kritiko eta eraikitzailearekin, gizartean erabateko transformazioa bideratzeko eta giza garapen jasangarria erdiesteko helburua duena.

Proiektuaren laburpena

4 urteko haurren gure ikasgelan gertatu izan diren hainbat egoeretatik abiatuz, hainbat proiektu garatu eta hainbat esperientzia bizi izan ditugu, aberasgarriak eta ahaztezinak guztiak, munduan bestelako errealitate batzuk daudela erakutsi diguten gertaerak izan dira, eta erakutsi digute guztiok izan gaitzkeela aldaketarako agente.

Proiektuaren helburuak

- GH zer den ezagutaraztea, eta ikastetxeko eguneroko dinamikan sartzeko beharra sortzea.
- Garapenerako Hezkuntzarako praktika onak diren esperientzia sinpleak ezagutaraztea, eta edozein etapatan hezkuntza-lerro hau jarraitzerantz animatzea irakasleak.
- Ikastetxean “beste” errealitate batzuk “biziaraztea”, “enpatia” gaitasuna garatuz.
- Adin txikienetatik Baloreetan hezteko beharrez sakontzea.

- Kultura arteko baloreen, balore solidarioen, kooperazio, elkar-ulertze, erruki eta tolerantzia baloreen inguruko praktikak eta hausnarketak areagotzea, eta baita aukera berdintasun/desberdintasunaren inguruan hausnarraraztea ere.
- Ikasleria, irakasleria, familiak eta gizartea sentsibilizatzea.
- Hiritarrak zentzu kritikoan heztea, aldaketako agente izatea eta hala ekiteko aukera ematea, “elkartasun kultura” sortuz.
- Elkarbizitza-klima arnas dadin zaintzea, “kulturaniztasun” terminoetan lan eginez eta gizarte kohesioa eta bakea baloratuz.
- Eskolaren marko itxia gainditu eta eskola “dinamiko” eta “dinamizatzaileria” bilatzea, herrira, auzora, hirira ateratzen den eskola, hezten duena eta gizartea aldatzen duena, “hiritar hezitzaileen” lerroan.
- Gainontzeko irakasle, langile eta familiak elkartasun proiektuetan inplikatu.
- Hobekuntzarako proposamen bihurtu dadila, eta Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan GH sartzeko behar den elkarrizketa gauzatu dadila.

ZENBAIT PROIEKTU ESANGURATSU

Proiektuak, eskuarki, modu naturalean sortzen dira, edo hurrek bultzaturiko proposamenetatik. Horietako batzuk urte osoan zehar mantendu dira, eta beste proiektu batzuk denboran zehar irauten dute. Garrantzitsua da ulertzea, ekintza puntualak baino gehiago ETENIK GABEKO PROIEKTU baten parte direla.

AGURRA: Eguna hainbat hizkuntzatan agurtuz hasten dugu: “Salam malekum, Malekum salam; egun on; buenos días; good morning; bonjour; denaïesteli (Etiopia), maatxi (Ghana); nihao (Txina); kir-kir (oilar batek)... eta beste batzuk gehituz goaz...”.

ESKUMUTURREKO BAT EROSIKO DIDAZU?: Guatemalatik eskumuturrekoak eta horiek saldu zizkidaten neskatoen argazkiak ekarri nizkien. Aukera desberdintasunaren gaira inguratu ginen era horretan, eta eskolara joateko ezintasunaz. Neska-mutikoen izenak ezagutu genituen, eta baita Guatemalako izen tipikoenak ere. Su-mendi bat eta guzti egin genuen, eta egun batean lehertu egin zen.

ETA AZKENEAN HALINA IRITSI ZEN: (Dainaren ahizpa da, urte guztian itxoiten egon ginen, adoptatu egin behar baitzuten). Halinak bere jatorriko jolasak erakutsi zizkigun, dantza egin genuen... Tailer honekin adopzioaren gaira gerturatu ginen, eta kontsumoaz hitz egiteko aukera eman zigun, jostailuen kopuru gehiegizkoaz, eta jolasteko lagunak izatearen garrantziaz.

MAURITANIARAKO AHUNTZA (besteentzako opariak). Olentzerok bi arrain eta opari oso berezi bat ekarri zizkigun: Ahuntz bat Mauritaniarako (Intermon Oxfam). Familiei herrialde honi buruzko informazioa eskatu genien. Harritu egin gintuen Mariata Ajibuk zazpi biloba izatea bere kargu eta esateak: “ahuntzak emango didan esnearekin hobeto elikatu ahal izango ditut”. Mauritaniako bizi-estiloa ezagutu genuen, Jaima bat egin genuen eta tea hartu genuen eta hondar-ekaitz bat ere antzestu genuen. Gure pasabidean munduko neska-mutil guztiei ahotsa eman genien, eta ondoko hau eskatu genion urte berriari: 1. Jana, 2. Botikak eta 3. Eskolak.

LARRIALDIKO ERIETXE BAT: Behin albistegietan ikusi genuen Mauritanian botikak eta medikuak behar zituztela, eta gure Jaima larrialdiko ospitale bilakatzea erabaki genuen. Familiek ekarri zizkiguten medikuntzako tresnak. Batzuk medikuz janzten ziren bitartean, besteek gaixoarena egiten zuten (enpatia). Pasabideetan zehar Mauritaniarako bidaia luze eta neketsu bat egin genuen. Beste behin, Haitira joan ginen, lurrikara bat jazo zelako han. Haurrak mapamundian kokatuz doaz ezagutzen ditugun herrialde berriak: Guatemala, Haiti, Sahara, Mauritania, Etiopia... “Boluntarioak” eta “botikatarako eskubidea” gaiak ukitu ditugu.

IJITO BATEN ANTZERA ZOAZ: Topikoak eta estereotipoak hautsiz. Behin, neskato batek esan zidan “ijito baten antzera zoaz” (ilea elektrifikatu egin zitzaidan jertsea kentzean), eta esan ohi ditugun esaldi batzuez eta horiek dituzten konnotazioez hausnartzen hasi ginen. Flamenko tailer bat egin dugu Sayeliren familiarekin (ijittoa da) eta guztiak joango gara geure familiarekin Sayeli dantzatzen ikustera. Buelta eman diogu esaldiari: “Ijito baten antzera zoaz!”, “Ijito bat bezain polit zoaz!”.

ZER DA HORI? Lurrari buruz ikusi genuen erakusketa batean desnutrizio egoeran zegoen mutiko baten argazkia ikusi genuen. Leirek galdetu zuen: “Zer da hori?”, “Desnutrizioa duen ume bat” -esan nion. “Puaj, ze nazka!”- gehitu zuen neskato batek. “Badakizue? Guk lagun diezaiokegu, ahi berezi bat bidaltzen badiogu, sendatu egingo da”-esan nien. Ezin duzue irudikatu ere egin nola ireki zituen bere begi urdinak Iraiak eta nola begiratu zidan! Gertakizun horren ondoren, gaia klasean lantzerantz animatu nintzen, Mugarik Gabeko Medikuei eskatu nien pack-material bat, eta RUFT (ahia) poltsa bat, eta neurgailuak bidali zizkiguten. Orain badakigu desnutrizioa sendatu daitekeela!

AMALURRA. “Unibertsoa”-ren gaia landuz, ohartu gara pentsatzen dugula Lurra planetan bakarrik dagoela bizitza, eta ezin gaitzkeela beste planeta batera joan. Ondorioztatu dugu bizi dugun Lurra zaindu egin behar dugula.

NOR DA GAUR MAKINISTA ETIOPIAN? “Errutinak” egitean, telefonoz hitz egin genuen (jolas sinbolikoa da) Etiopiako gure adiskideekin, munduko beste neska-mutiko batzuekin lotura afektiboak sortuz, euren izenak eta euren nahiak ezagutuz.

METODOLOGIA ETA ASPEKTU BERRITZAILEAK:

Gure ikasgelan haurra bere ikasketako protagonista sentitzen da. Metodologia globalizatu, aktibo eta malgu batetik abiatzen gara, kontzientzia kritikoa, empatia eta ekintzarako gaitasuna garatzen dituen. Irakasleak lagundu eta gidatu egiten du ikasketa-prozesuan, non denok, ikasle-irakasle eta familiek ikasten dugun.

- Alor curricular guztiak GHrekin loturiko proiektuen bidez lantzen dira.
- Bizi-esperientziak dira. Ahazten zailak diren aldaketa-prozesuetan aktiboki parte hartu dugu: "Gaur Haitira joango gara" (Mediku boluntarioz jantzirik gure larrialdi-ospitalearekin haraino joan gara).
- ETENIK GABEKO PROZESUA da, eta ez ekintza puntualak.
- Haurrekin ELKARRIZKETAN aritu behar gara, eta horiek sistematikoki jasotzen.
- Proiektuak argazki eta azalpenen bidez DOKUMENTATZEN dira.
- Neska-mutikoek bizipen hauek KOADERNOTXOTAN dokumentatuak eraman dituzte euren etxeetara, argazki eta testuekin.

EBALUAZIO TRESNA ETA IRIZPIDEAK

GHren definiziotik, curriculumaren alorrak lantzeko behar diren irizpideak ezartzen dira, eta ondoko ebaluazio-tresna hauek diseinatu ditugu:

- ELKARRIZKETEN ERREGISTROA: Klaseko koadernoan apuntatuko ditugu neska-mutilen iritziak, epaiak, etab., era horretan, abiapuntu bat jarri ahalko dugu. Iritzietan aldaketen garapena ikusiko dugu, errealitatearekin kritikoago diren iritziak eta soluzioak bilatzeko interesa duten iritziak entzungo ditugu.
- BEHAKETA: Prozesua bideratzeko funtsezko tresna da.
- ARGAZKI KAMERA: Une oso esanguratsuak jasotzeko balioko digu. Argazki-sekuentzien behaketak dokumentazioa bera ilustratzeko eta ondoren ebaluazioa egiteko balioko digu.
- FAMILIEN PARTE-HARTZEAREN ERREGISTROA. Materialak eta informazioa emateko garaian familiek nola kolaboratu duten kontuan izan dugu.

- Proiektu guztiak argazkien, umeen arteko elkarrizketen eta azalpenen bidez DOKUMENTATUAK daude. Word formatuan eginiko koadernotxo batzuk eraman dituzten euren etxeetara, argazkiak erantsiz komiki gisan, eskolan bizi izandakoa laburtuz. Hau da guraso batzuen lekukotasuna: "... eta egongelako lurrean zabaldu zituen, gero argazkiak banan-banan hartu eta esan nahi zuena azaldu zigun... benetan pozgarria izan zen".

- Familiei ELKARRIZKETAK.

- Korridoreetan MURALAK. Beste haur eta heldu batzuekin partekatzeko modua da. Beste haur horiek muralak ikustean esaten dutena behatzea eta kontuan izatea ere garrantzitsua da.

- Familien BALORAZIOAK idatziz. Urrian eta maiatzean, klaseko batzarrari buruzko balorazio idatzia eskatu diegu gurasoei, GHn oinarrituriko hezkuntza-lerroa, eta etxera eraman duten dokumentazio-lanari buruz. Balorazioa oso positiboa izan da.

Espero dut proiektu honek edozein ikastetxeren nortasun-zeinuak definitzen lagunduko duela.

"Proiektu honetako protagonistei: Sayeli, Ane, Odei, Ainhoa, Eneko, Daina, Mikel Gorka, Irati, Leire, Iban, Naiara, Iraia, Bidane".

"14 hazi eta begirada eraldatzailea".